

(https://www8.smartadserver.com/click?
imgid=25527153&insid=9535866&pgid=1026135&ckid=186885177240643976&uii=241046972874116516&
batzuk-ateak-zabaltzekoak-dira-egunotan.htm&go=http%3a%2f%2fwww.maizpide.eus%2feu)



# Sagardotegi batzuk ateak zabaltzekoak dira egunotan

Zerbitzua eserita emango da, eta sagardoa botilakoa izango da. Txotxa modu puntualean eta talde txikitan egingo dute.



**Irune Lasa**
**(https://www.berria.eus/egilea/Irune_Lasa)**



Zabala sagardotegia, Adunan. ANDONI CANELLADA / FOKU
(https://www.berria.eus/argazkiak_jarraia/egunekoak/2020-05-28/jarraia182022.jpg)



(https://www8.smartadserver.c
imgid=25128624&insid=9338
batzuk-ateak-zabaltzekoak-
dira-
egunotan.htm&go=https%3a%

**Gehien irakurriak**
**(https://www.berria.**

2020ko maiatzak 28

f
(https://www.facebook.com/sharer/sharer.php?

Itzuli da sagardoa sagardotegian edateko aukera, leuntzearen bigarren fasearekin. Euskal Sagardoa jatorrizko deiturak jakinarazi duenez, sagardotegi batzuek ateak irekitzea erabaki dute udari begira, eta bai barrualdean bai terrazetan %50eko edukiera errespetatuz. Aldiz, beste sagardotegi batzuek, txotx sasoian soilik zabaldu ohi dutenak asko, amaitutzat eman dute 2020ko denboraldia.

Publizitatea

Joan den astean, sektorearentzako formakuntza ikastaro trinko bat izan zen, eta 55 sagardotegik parte hartu zuten, ateak berriz zabaltzeko protokoloak ezagutzeko.

Sagardotegiek abagune honetan aukera bereziak izan ditzakete, hala nola natur ingurunea eta espazio zabalak. Zerbitzuak ere egokitu ditzakete. Normaltasun bidean oraindik, sagardotegietako zerbitzua eserita izango da, nagusiki botilako sagardoa eskainiko da, eta txotxa egiteko aukera ere izango dela azaldu du Euskal Sagardoak: «Kasu batzuetan, modu puntualean eta talde txikitan».

1 **GAL-i buruzko ikerketa batzordea eratzea baztertu du Espainiako Kongresuak (https://www.berria.eus/...-buruzko-ikerketa-batzordea-eratzea-baztertu-du-espainiako-kongresuak.htm)**
JON O. URAIN (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA

2 **Hizkuntzak (https://www.berria.eus/...06-23/hizkuntzak.htm)**
ONINTZA ENBEITA (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA

3 **Ligatzea esaten diote (https://www.berria.eus/...06-23/ligatzea-esaten-diote.htm)**
GOIZALDE LANDABASO (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA

4 **«Diktadura da pandemiarik okerrena» (https://www.berria.eus/...06-23/diktadura-da-pandemiarik-okerrena.htm)**
CECILIA VALDEZ (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA

5 **Bizikletak krisi garairako (https://www.berria.eus/...06-23/bizikletak-krisi-garairako.htm)**
JOKIN SAGARZAZU (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA

# Goizeko buletina

BERRIAren papereko edizioaren gai nagusiak biltzen ditu egunero (astelehenetan salbu). Goizean goiz iristen da zure posta elektronikora.

☐

Pribatutasun politika (https://www.berria.eus/legeinformazioa#pribatutasuna) eta Lege informazioa (https://www.berria.eus/legeinformazioa) irakurri ditut eta onartzen ditut

No soy un robot
reCAPTCHA
Privacidad - Términos

idatzi zure po    Harpidetu



(https://www8.smartadserver.c
imgid=25522209&insid=95340
batzuk-ateak-zabaltzekoak-
dira-
egunotan.htm&go=https%3a%

## Albiste gehiago




Koronabirusaren azken datuak (https://www.berria.eus/albisteak/178753/k.htm)

Azkeneko 24 orduetan COVID-19 gaitzak pertsona bat hil du Euskal Herrian, eta 28 positibo atzeman dituzte PCR probekin. Euskal Herrian 30.779 gaixok eman dute positibo guztira, koronabirusa atzemateko probaren bat eginda. Horietatik 2.143 hil dira. **Grafikoak, albiste barruan.**



Hegoaldeak beste 28 kutsaturekin abiatu du «normaltasun berria» (https://www.berria.eus/paperekoa/2375/002/001/2020-06-23/hegoaldeak-beste-28-kutsaturekin-abiatu-du-normaltasun-berria.htm)

AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ KORTABARRIA (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/AMAIA_RAMIREZ_DE_OKARIZ_KORTABARRIA)

Nafarroa iparraldean eta Iruñerrian 21 kasu atzeman dituzte. Murgak adierazi du Orioko kasuak kontrolatzen ari direla, eta 50 PRC proba egin dituztela. Gobernuek erantzukizuna eskatu dute



[Industriaren fakturazioa erdira murriztu da Hego Euskal Herrian](https://www.berria.eus/paperekoa/1891/006/001/2020-06-23/industriaren-fakturazioa-erdira-murriztu-da-hego-euskal-herrian.htm) (https://www.berria.eus/paperekoa/1891/006/001/2020-06-23/industriaren-fakturazioa-erdira-murriztu-da-hego-euskal-herrian.htm)

XABIER MARTIN (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/XABIER_MARTIN)

Martxotik apirilera, salmenten %50 galdu dituzte Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako sektoreko enpresek, eta %48,3 Nafarroakoek



'Normaltasunerako' irizpideak (https://www.berria.eus/paperekoa/2271/003/001/2020-06-23/normaltasunerako-irizpideak.htm)

JON O. URAIN (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILEA/JON_O._URAIN)

Konfinamendutik irtenda, «normaltasun berrian» da Hego Euskal Herria; maskara janztea, eskuak garbitzea eta distantzia soziala gordetzea dira irizpide nagusiak.

---


Irakurle agurgarria:

Honaino iritsi zarenez, eskaera bat egin nahi dizugu: irakurtzen ari zaren edukia eta egunkaria babestea, konpromiso ekonomikoa hartuz. Publizitatea eta erakundeen diru-laguntzak ez dira nahikoa BERRIAren etorkizuna bermatzeko. Sarean eskaintzen dizugun edukia irakurtzen duzuen milaka irakurleek proiektuari ekarpena eginda, urrutira iritsiko ginateke.

Kazetaritza libre, ireki eta independentea egin nahi dugu euskaldunontzat. Euskaraz informatzea delako gure eginkizuna, eta zure eskubidea.Lagun gaitzazu bide horretan. Idatzi gurekin etorkizuna. Geroa zugan.

**Martxelo Otamendi**
BERRIAko zuzendaria

Izan zaitez BERRIAlaguna (https://www.berria.eus/berrialaguna/)

(http://www.gipuzkoa.net)

(http://www.uzei.eus/online/idite/)

(http://www.emakunde.euskadi.eus/enpresa-erakundeak/-/informazioa/lankidetza-erakundea/)

0 Iruzkin Berria 1 Sa

Gomendatu Tweet Partekatu Berrien

Hasi eztabaida...

HASI SAIOA HONEKIN

EDO ERREGISTRATU DISQUS-EKIN ?

Izena

Egin lehen iruzkina.


Berria.eus - Euskal Editorea SM
Telefonoa: 943-30 40 30
Faxa: 943-59 01 72
Webgunea: webgunea@berria.eus
Publizitatea: publi@bidera.eus
Harpidetza: harpidetza@berria.eus





CC Lizentzia (https://www.berria